## Mintegia / Seminario URRIAK 22 - 23 OCTUBRE

### ALEJANDRO CASTELLOTE
IDIOMAS Y DIALECTOS

**Europan eta Ipar Amerikan XIX. eta XX. mendeetan sortutako ikus-paradigmei zeharkako begiratua, argazkilarientzat derrigorrezko gramatika baten ezarpena ekarri dutena. Inperio nahieko herrialde hauetako periferiek garatutako argazkigintza proposamenak tradizionalki anglosaxoi eta frantsez sustrai-enborretik jaiotako dialektoak izan dira. "Hizkuntza bakar" honi aurre egiteko alternatiba hizkuntza autonomoen burujabetzea da, euren gramatika eta semantika egitura ikusgai bihurtuz.**

**Alejandro Castellote Madrilen jaio zen, 1959an. Madrilgo Arte Eder Zirkuluko Argazkilaritza Arloko zuzendaria izan da, eta PhotoEspañaren zuzendari artistikoa bere lehenengo hiru edizioetan. Lunwerg Editorialeko argazkigintza garaikide arloko arduraduna izan da baita ere. San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako kidea da. Argazkigintzako komisarioa izan da *C on Cities* Veneziako Arkitektura Bienalean. Gaur egun, GETXOPHOTOko komisarioa da. 2006an Bartolomé Ros Saria eman zioten Espainiako argazkigintzako ibilbide profesional onenari.**

Una mirada transversal a los paradigmas visuales generados en Europa y Norteamérica en el siglo XIX y en el XX que han construido una gramática de obligada aplicación para los fotógrafos. Las propuestas fotográficas desarrolladas en la periferia de estos países con vocación imperial han sido tradicionalmente dialectos surgidos de la raíz troncal anglosajona y francesa. La alternativa a esta "lengua única" es la emancipación de los lenguajes autónomos, haciendo visible su estructura gramatical y semántica.

Alejandro Castellote nace en Madrid en 1959. Ha sido director del Área de Fotografía del Círculo de Bellas Artes de Madrid, así como director artístico de PhotoEspaña en sus tres primeras ediciones. También ha sido responsable de Fotografía Contemporánea en la Editorial Lunwerg. Es académico correspondiente de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando. Ha sido comisario de *C on Cities* para la Bienal de Venecia de Arquitectura. En la actualidad es comisario de GETXOPHOTO. En 2006 le fue concedido el Premio Bartolomé Ros a la mejor trayectoria profesional en fotografía española.

**Arte Ederren Fakultatea /** Facultad de Bellas Artes
**Izenematea /** Inscripciones: arantza.lauzirika@ehu.es
**Kreditu 1 /** 1 crédito

**GETXOPHOTO, Nazioarteko Argazki Jaialdia, biran doa eta Euskal Herriko Unibertsitatean, honen laguntza eta konplizitatearekin, Jaialdiaren azken edizioan ikusi ziren bost erakusketa aurkezten ditu. GETXOPHOTO mutatu egin da, hau da, eraldaketa prozesuan dagoen leku honetara egokitzeko transformatu.**

GETXOPHOTO, Festival Internacional de Fotografía, sale de gira y presenta en la Universidad del País Vasco, con su colaboración y complicidad, cinco exhibiciones que se vieron en la última edición del Festival. GETXOPHOTO muta y se transforma para adaptarse a este emplazamiento, también en proceso de cambio.

**laguntzailea /** colabora — Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**babesleak /** patrocinan — Getxo Udala • Ayuntamiento; BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia; Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; bbk

**antolatzailea /** organiza — begihandi

# GET TOUR
# MUTAZIOAK
# MUTACIONES
# EHU-UPV
# 10

**NAZIOARTEKO ARGAZKI JAIALDIA**
FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA
WWW.GETXOPHOTO.COM

01

## Philip Kwame Apagya

### STUDIO PORTRAITS

**Ghana, 1958. *Studio Portraits* bere seriean erretratatuei jeneralean ezin lor dezaketena gloria momentu batean edukitzeko aukera ematen die: telebistak barra armairuetan, sukalde moderno ondo ornituak edota kasu honetan bezala, aukerez beteriko hiri berri bat. Tipologia dibertigarriak direla eman dezake, baina nahigabe kezkagarriak ere badira. Izan ere, mendebalderako joera eta amets tribial eta materialistak sortutako hutsune kulturala erakusten dute.**

Ghana, 1958. En su serie *Studio Portraits* Kwame ofrece a sus fotografiados un momento glorioso en el que pueden poseer lo que normalmente les resulta inaccesible: televisores en armarios de barra, cocinas modernas bien abastecidas o, como en este caso, una ciudad nueva y llena de oportunidades. Este tipo de tipologías pueden parecernos divertidas, pero resultan involuntariamente inquietantes, ya que muestran la tendencia hacia lo occidental y el creciente vacío cultural originado por un sueño trivial y materialista.

**Non: Lan Harremanetako Unibertsitate Eskola /** Dónde: Escuela Universitaria de Relaciones Laborales



01 © Philip Kwame Apagya

04

## Cecilia Paredes

### ANIMAL DE MI TIEMPO

**Cecilia Paredes Liman jaio zen, Peru, 1950ean. Bere lanak gorputza eta naturaren artean eta alderantziz, apropos egindako nahasmenaren gainazal sentsuala aztertzen du. Eszenaratze landuaren bidez eta tratamendu digitala erabiliz, Paredesek gizakiak galdu duen identitate zatia bilarazten digu: gizakia animalia dela eta naturari dagokiola.**

Cecilia Paredes nace en Lima, Perú, en 1950. Su trabajo explora la superficie sensual en la que el cuerpo se confunde deliberadamente con la naturaleza y la naturaleza con el cuerpo. A través de una elaborada puesta en escena y sirviéndose del tratamiento digital, Paredes nos introduce en la búsqueda de una parcela de identidad que el ser humano parece haber olvidado: su condición animal y su pertenencia a la naturaleza.

**Non: Liburutegi Nagusia /** Dónde: Biblioteca Central



04 © Cecilia Paredes



02 © Sammy Baloji

03

## Dionisio González

### CARTOGRAFÍAS PARA A REMOÇAO

**Gijón, 1965. Gonzálezen lanean nabarmen geratzen dira espazio pribatu eta publikoaren arteko desberdintasun eza, talde babesa, arkitekturen mugikortasuna, hala nola favelaren egituraketa. Hirigintza eskasaren gaineko begirada dramatikoa aurkeztu beharrean, Gonzálezek, bere fotomuntaien bidez, txirotasunaren esperientzia basakeriaren kontzeptu positibo berria dela pentsatzera garamatza.**

Gijón, 1965. La indiferenciación del espacio privado y público, el arropamiento grupal, la movilidad de las arquitecturas, así como la estructuración de la favela, son algunos de los aspectos que destacan en la lectura de su trabajo. Lejos de presentar una mirada dramática sobre un aspecto urbanístico precario, González nos conduce, a través de sus fotomontajes, a pensar en la experiencia de la pobreza como un nuevo concepto positivo de la barbarie.

**Non: Liburutegi Nagusia /** Dónde: Biblioteca Central



03 © Dionisio González



05 © Fernando Maquieira

02

## Sammy Baloji

### MÉMOIRE

**Kongoko Errepublika Demokratikoa, 1978. Tamaina handiko fotomuntaiez baliatuta, bere argazkiek irudi historiko eta garaikideak nahasten dituzte. Belgiar aro kolonialetik hartutakoak dira, meatzetako tipologia arkitektonikoen hondarrak; eta hauek antzinako meatzari esplotatuen argazkiekin konbinatu ditu. Lan honek hausnarketarako bidea irekitzen digu, esplotazioak markatutako gizartea eta boterearen egituren lekukotzarekin. 2007an Bamakoko Argazki Afrikarraren Jaialdian eta Parisko PhotoQuai-n parte hartu zuen.**

República Democrática del Congo, 1978. Sus fotografías mezclan imágenes históricas y contemporáneas mediante fotomontajes de gran formato. Los restos de las tipologías arquitectónicas mineras, heredadas del periodo colonial belga, son combinadas con fotografías de los antiguos mineros explotados por los colonizadores. Su trabajo invita a la reflexión acerca del testimonio de una sociedad marcada por la explotación y las estructuras de poder. En 2007 participó en el Festival de Fotografía Africana de Bamako y PhotoQuai en París.

**Non: Liburutegi Nagusia /** Dónde: Biblioteca Central

05

## Fernando Maquieira

### ÁNIMA

**Puertollano, 1966. *Ánima*-n, Maquieirak bizitza eta heriotzaren arteko harreman berezia planteatzen digu, argazkigintza erabiliz bien arteko espazioa erakusteko. Egileak disekatutako animalien alderdirik biziena erakutsi nahi digu argazki ekintzaren bidez. Ekintza hau jendartean erakusten den unean, berez, iraganari dagokion denbora agertzen du, jada existitzen ez den denbora eta hortaz heriotzatik hurbil konfiguratzen dena.**

Puertollano, 1966. A través de *Ánima*, Maquieira plantea una especial relación entre vida y muerte, introduciendo a su vez la fotografía como medio para mostrar un espacio entre ambos. Busca expresar el aspecto más vivo de los animales disecados a través de una acción fotográfica que, en el momento de exhibirse al público, ya representa en sí un tiempo que pertenece al pasado, que ya no existe y, por tanto, se configura cercano a la muerte.

**Non: Arte Ederren Fakultatea /** Dónde: Facultad de Bellas Artes